Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

219 zenbakia
2020 **abendua**

Prest!

BERBETAN: **AINHOA MAIZTEGI RODRIGUEZ** DIETISTA-NUTRIZIONISTA

ERREPORTAJEA: **LOPEZ IRASUEGI, BURGOSEN EPAITUTAKO DEUSTUARRA** **BARKUA:** **SORTZAILEEN AZOKA**

TOKIKOM

202-203-205-206-

Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu Ikastola

Txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

Erraldoien Ondalan Konpartsa

DEUSTO 3 BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto

Bihotz Alai Fontaneria Taldea

Erravn Taldea Deustu

Elorri Bertso Eskola

Deustuko Jai Batzordea

S.D. Deusto

Defenda Dezagun!

Zirikatzen!

eaj pnv deustu

Egunsentia Eskaut Taldea 1982tik

Ernai Deustua

Pare Hautsi Ditzagun Kateak

Deustuko Gazte Asanblada

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

219 zenbakia
2020ko abendua

aurkibidea

Iker Basabe Mendizabal - Maider Zalbidea Pardo **Iritzia** 4

Santiago Montaner García **Gurera etorriak** 5

erreportajea 6
Gregorio Lopez Irasuegi, Burgosen epaitutako deustuarra

Duela 50 urte, 1970eko abenduan, frankismoak epaitegi militar baten aurrera eraman zituen hamasei euskal herritar. Haren protagonistetako bat, deustuar bat, Gregorio Lopez Irasuegi ekarriko dugu gogora.

Deustuko Eskola **Eskolak** 10

Deustuko lehenengo botikarien gaineko albisteak **Behin batean** 12

Auzokide eta osasun-langileak Etengabeko Arreta Gunea ixtearen aurka **Artikulua** 14

berbetan 16
AINHOA MAIZTEGI RODRIGUEZekin

Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua ikasi zuen Ainhoa Maiztegi Rodriguezek (Deustu, 1996) Euskal Herriko Unibertsitatean. Egun nutrizionista gisa dabil lanean eta elikadura egoki baten garrantziaz eta horrek dakarrenaz egon gara berarekin hizketan.

San Felicisimo (1960) **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

SORTZAILEEN AZOKA Sortzen duen herria ez da inoiz hilko

MAROLARITZA Auzoko txokoak koadro bihurtuz

PINTXODROMOA Txokolatezko browniea eta kuia-bizkotxoa

KULTUR TXOTX Jon Mirena San Pedro eta Unai Foruria Egia

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Helene Sarazola, Iñigo Martinez Peña, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Iker Basabe Mendizabal
Ikaslea deserrian

Kontraesanak

Kontraesanetan murgilduta ematen ditugu egunak, urteak, boladak seguraski. Kontraesanak errealitatearen adierazle oso nabarmena izaten dira. Kontraesanak izaten dira kontakizunaren gakoa gehien bat. Zikindu panorama, desitxuratu imajinarioa. Bizitzearen kontraesan etengabeak determinatzen du askotan bizitzaren jarioa. Gakoa bakoitzak kontraesanak nola apaintzen dituen eran egoten da. Itzulipurdi dialektikoak ikusiak ditugu, ezjakintasun inozoak, isilune amaigabeak…

Kontraesan etengabean bizi da, bizitza osoan esplotatzailea izan den ostalariaren alde agertzen den manifestaria, kontraesanetan bizi den bezalaxe polizia eta guardia zibilari soldata igotzen dien aurrekontuen berrespena sutsu bultzatu duen ustezko iraultzaile gaztea, edo urtero txapa morea janzten duen eta aurreko astean Maradonaren argazkia haren Twitterreko profilean jarri zuen gizonezkoa, 'D10S' hitza gainean idatzita.

Barkatuko didazue Bi bala taldearen *Kontraesanak* kantaren plagio bat ari banaiz egiten honakoan. Beharrezkoa ikusi dut bizi garen gizarte likido eta bat-batekotasunaren preso den honetan inguruan ditugun kontraesanen eguneratze ziniko bat egitea.

Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

Eta Mari Domingi zer?

Buruzapi zuriaren emakumea, irrintzi eta algaraka basoan barrena dabilena, sorgina, lamia, neguko solstizioko pertsonaia mitologikoa, Olentzeroren laguntzailea… Olentzeroren laguntzailea?

90eko hamarkadan hasi ginen Mari Domingi Olentzeroren ondoan ikusten eta ordutik hona nik atzean edo bigarren maila batean ikusten jarraitzen dugula gehituko nuke. Leku batzuetan, oraindik ere, Olentzerok bakarrik bisitatzen ditu umeak. Beste batzuetan, ordea, biek, baina Mari Domingi beti Olentzeroren besotik helduta.

Eta Mari Domingi zer? Zergatik ez da abesten toki guztietan Mari Domingiren abestia Olentzerori kantatzen zaion bezala? Ez al da Mari Domingi, Olentzero bezala, opariak etxez etxe banatzeko gai, ala?

Mari Domingik, oraindik, ez du behar bezalako garrantzia hartu. Onintza Enbeitak pasa den urtean eskatu zuen legez, aurten, biek mendian behera egingo dutenean, Olentzerok Mari Domingiri aurrea ez hartzea eskatu nahiko nuke nik ere. Eta urtero eskatu behar ez izatea espero dut. Gabon hauetan, behingoz, Mari Domingik buruzapia askatu eta erantzi dezala eta Olentzerok bere argi guztia kanporatzen utz diezaion espero dut.

Santiago Montaner Garcia

Jatorria: Zaragoza
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: Ikertzailea

"Tortilla pintxoak Bilboko topean sartuko nituzke"

Zenbat denbora daramazu Deustun?
2012an heldu nintzen Bilbora eta geroztik hainbat auzotan bizi izan naiz: Zabalburun, Arangoitin, Deustun, Elorrietan eta 2018ko udaz geroztik berriz ere Deustun.

Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?
EHUko master bat ikastera etorri nintzen 2011an. Hurrengo urtean, ikerketa-talde batean doktorego-tesia egiteko aukera sortu zitzaidan eta taldeak lantzen duen gaia interesatzen zitzaidanez, beka bat eskatu, eta Bilbora etorri nintzen.

Zer dela eta erabaki zenuen geratzea?
Tesia amaitu ondoren hemen lanean jarraitu nuen denbora batez, gero Frantziara joan nintzen doktoretza ondoko egonaldi bat egitera ia urtebetez. Nire neska-lagunak hemen zuen lana (nahiz eta bera ere kanpokoa izan), eta, azkenean, Bilbora itzuli nintzen.

Nolakoak izan ziren zure lehen egunak hemen?
Niretzat berritasun bikoitza zen, alde batetik, gurasoen etxetik joaten nintzelako, eta, bestetik, hiri berria zelako niretzat. Aldaketa dezente izan ziren; adibidez, Zaragozan oinez edo bizikletaz mugitzen nintzen beti; hemen, berriz, egunero autobusa hartu behar nuen Leioara joateko, sardinak latan bezala joaten ginen. Gainera, jada ez nintzen Unibertsitatera joaten klasera, lanera baizik, oso biziak izan ziren lehen egunak. Bestalde, beti dago ondo leku berriak aurkitzea, dibertigarria izan zen. Deigarria iruditu zitzaidan Bilbo Handiko paisaia industriala inguruko paisaia naturalarekin nahastea.

Gaur egun, zertan ari zara hemen?
Matematikaria naiz eta zentro tek-nologiko batean egiten dut lan ikertzaile gisa, datuekin egiten dut lan.

Zer gustatzen zaizu gehien Deustun eta Bilbon?
Bilbon asko gustatzen zaidan zerbait da hiria inguratzen duten mendiak eta itsasotik gertu egotea. Topean tortilla pintxoak ere sartuko nituzke. Deustutik gustatzen zaidana da Bilbo barruko hiri txiki bat bezalakoa izatea.

Eta gutxien?
Euria eta etxebizitza nahiko garestia dela.

Ondo integratu zara auzoan?
Suposatzen dut baietz. Denboraldi batean palan jolastera joaten nintzen frontoira, eta baita pintxopotera ere. Oro har, nahiko bizitza egiten dut auzoan.

Parte hartu duzu talderen batean, proiekturen batean?
Denbora batez Gazte Lokaleko baratze taldean egon nintzen.

Euskara ikasi duzu?
Ez, hitz solteak baino ez ditut ikasi, esaldi solteren bat ere harrapatzen dut batzuetan, baina ez naiz inoiz joan euskara-ikastaro batera, uste dut zailegia iruditzen zaidala horretarako.

Zaragozara itzuli ohi zara?
Bilbon egon nintzen lehen urteetan dezente itzultzen nintzen, baina denborarekin gero eta gutxiago joaten naiz. Aurten, pandemia dela eta, oso gutxi joan naiz.

Zer duzu faltan?
Nire familia eta lagunak. Hemen ez bezalako paisaiak ere faltan botatzen ditut.

HOJA DEL LUNES DE BILBAO

Porrazos y cargas de la Policía en la llegada a Bilbao de Goyo López Irasuegui

★ Los periodistas fueron desalojados de una rueda de Prensa prevista con el miembro de E.T.A. amnistiado

★ "Aquí nada ha cambiado", afirma

A las diez menos veinticinco de la noche del sábado llegó a Bilbao, procedente de Madrid, en el tren Talgo, Gregorio López Irasuegui, miembro de ETA recientemente amnistiado que había dejado la cárcel del Puerto de Santa María el pasado

acto de presencia en la sala en que estábamos congregados periodistas de diversos medios provinciales y nacionales un grupo de policías armados antidisturbios, acompañados de un inspector, quien, tras comprobar que había más de veinte

Con el brazo en alto Goyo López Irasuegui saluda a los centenares de personas que habían acudido a recibirle. Era la vuelta a casa. (Foto Betargi.)

GREGORIO LOPEZ IRASUEGI, BURGOSEN EPAITUTAKO DEUSTUARRA

Duela 50 urte, 1970eko abenduan, frankismoak epaitegi militar baten aurrera eraman zituen hamasei euskal herritar. Aipatutakoak eskarmentuzko epaiketa izan behar zuen 60. hamarkadatik suspertzen ari zen antifrankismoaren aurka, ETAren aurka, kasu honetan. Alta, 1937an militar faxistek Hego Euskal Herrian indarrez ezarritako Francoren erregimena salatzeko prozesua bilakatu zen, auzipetuek epaiketa hankaz gora jarri zutelako eta kalean zein nazioartean jasotako babesari esker. Burgosko auziaz ari gara eta haren protagonistetako bat, deustuar bat, Gregorio Lopez Irasuegi ekarriko dugu gogora.

Testua: Borja Sarrionandia Ibarra-Fernandez

Luze eta asko idatzi da azken hilabete honetan Burgosko auziaren inguruan. Komunikabide gehienek, idatzizkoek zein ikus-entzunezkoek, tarte zabalak eskaini dizkiote Euskal Herriko garaiko historian mugarri izan zen eta diktadura frankista ataka larrian utzi zuen pasarte horri. Erreportaje honetan Gregorio Lopez Irasuegik auzian bizitakoari erreparatuko diogu.

1960an onartutako lege dekretu frankista batek aukera ematen zien auzitegi militarrei zenbait delitu epaitzeko eta frankismoak hori baliatu zuen gerra kontseilua antolatzeko. Erregimenak frankismoari oso leialak ziren graduazio handiko hiru militar jarri zituen auzitegiaren buru, helburu zehatz batekin: eskarmentu handi bat ematea.

Akusatuen aulkian, beste 15 kiderekin batera, Gregorio Lopez Irasuegi, 1946an Izurtzan jaiotako Deustuko bizilaguna. 1969ko urtarrilaren 5ean atxilotu zuten, Iruñeko kartzelatik Arantza Arruti ETAko militante eta emaztea espetxetik askatzeko saiakera frustratu baten ondorioz. Burgosko prozesuan ere auzipetuta egongo zen Xabier Izko

de la Iglesia ETAko kidearekin batera atxilotu zuten. Ordurako, Lopez Irasuegi ETAko zuzendaritzako kidea zen. Ekintza horregatik 1969ko urtarrilaren 30an 10 urte eta 2 hilabeteko espetxe zigorra jaso arren, Burgosko prozesuan berriro epaitu zuten.

Hasieran esan bezala, erregimen frankistak Burgosko auziaren bitartez Francoren aurkako erresistentzia errotik moztea zuen helburu. Auzipetuek, berriz, oso argi zeukaten: Francoren erregimen faxistak izan behar zuen epaitua. Frankismoaren izaera zapaltzailea eta faxista salatzea izan zen, hain zuzen, epaituak izan ziren hamasei euskal herritarren zeregina. Horretarako, euren abokatuekin batera, epaiketa hasieratik iraultzeko estrategia garatu zuten. Alde izan zituzten epaiketa aretoan nazioarteko behatzaileak eta prentsa.

Abenduaren 8an Gregorio Lopez Irasuegiren txanda heldu zen. Aipatutako estrategia horren baitan, Deustuko bizilagunari egokitu zitzaion auzipetuak gerra presoak zirela azaltzea eta "faxismoa herriaren aurka egiten ari zen gerra" agerian uztea.

Lopez Irasuegik uko egin zion fiskal militarrak egindako itaunketa erantzuteari. "Egia al da

EL CORREO ESPAÑOL
EL PUEBLO VASCO
EDICION VIZCAYA

HOY (a las 12,30) MANIFESTACION EN BILBAO

VIZCAINO: AGRADECE HOY A FRANCO Y AL EJERCITO LOS TREINTA AÑOS DE PAZ Y PROGRESO

Gregorio Lopez Irasuegi

erakunde klandestinoa den ETAko kidea zarela?" lehenengo galdera horrela erantzuten zuen auzipetutako deustuarrak:

"Uko egiten diot galdera erantzuteari, gerrako preso gisa 1949ko Genevako Hitzarmenei heltzen diedalako, Espainiako Estatuak 1952an berretsi zituenak. Aipatutakoen arabera, neure burua identifikatzera baino ez nago behartuta, hau da, nire izena eta graduazioa ematera: nire izena Gregorio Lopez Irasuegi da, ETAko kidea naiz, eta ETAko liberatua izan naiz Ondarroako eskualdean".

Erantzuna ikusita, fiskalak erabaki zuen galdeketa etetea. Lopez Irasuegik jarrera bera izan zuen bere defentsa abokatuarekin. Zein gerraz ari zen galdetu zionean honela erantzun zuen: "Faxismoa herriaren aurka egiten ari den gerraz, Espainiako Estatuko agintariek behin eta berriz deklaratu digutena".

Aski ezaguna denez, hurrengo egunean, abenduaren 9an, azken auzipetuaren deklarazioarekin batera, akusatuek epaiketa hankaz gora jarri zuten "Gora Euskadi Askatuta" oihukatuz eta Eusko Gudariak abestuz. Ezustean harrapatu zituzten militar faxistak, zeinei, etsituta, ezpatak zorrotik ateratzea besterik ez zitzaien bururatu.

Gerra kontseiluaren aretoa

Epaiketa amaitu zenetik epaia ezagutzera eman arte pasatutako ia hogei egun horietan protestak ugariak izan ziren Euskal Herri osoan, Katalunian, Espainiako Estatuan bertan eta Europan zehar. Erantzun gisa, erregimen frankistak Eibarren manifestari gazte bat tiroz hil zuen, eta horreteaz gain, salbuespen egoera ezarri zuen. Indarra erakusteko azken ahalegin desesperatuan, milaka jarraitzaile faxistak kalera ateratzera behartuta ikusi zuten bere burua, baita Bilbon ere, Franco, Armada frankista eta Espainiaren batasunaren alde.

Abenduaren 28an argitaratu zen epaia: bederatzi heriotza-zigor eta 519 urteko kartzela-zigorra. Lopez Irasuegiri dagokionez, 30 urteko zigorra ezarri zioten matxinada militarra delituagatik. Bi egun geroago, Frankismoak, Euskal Herrian zein nazioartean egondako erantzuna ikusita, atzera egin behar izan zuen, indultua eman eta indarrik gabe utzi zituen heriotza zigorrak.

Lopez Irasuegik ia zortzi urte pasatu zituen espetxean. 1976ko irailaren 21ean aske gelditu zen Franco hil osteko Espainiako gobernu ez demokratikoak egun batzuk lehenago ezarritako amnistiaren dekretu baten ondorioz libre utzi zuen Deustuko bizilaguna. Ia zortzi urte luze horietan Iruña, Ocaña, Burgos, Soria, Segovia, Córdoba eta, azkenik, Kadizko Puerto de Santa María espetxeetan izan zuten preso.

Etxera itzultzean, mila pertsona inguruk oraindik debekatuta zegoen ikurrinekin ongi etorri beroa eskaini zioten Bilboko Renfeko geltokian. Polizia armadun espainiarra gogor oldartu zen bertaratuen kontra. Ostean, poliziak Lopez Irasuegik Albia eraikinean eskaini nahi zuen prentsa-agerraldia eragotzi zuen. Azkenean, beste leku batean lortu zuen kazetariekin biltzea eta bertan espetxera bera ikustera joandako emaztea kartzeleratu izana salatu zuen.

Harrezkero, EIAko militantea eta, ostean, Euskadiko Ezkerrako ordezkaria izan zen. 1978an alderdia utzi eta Herri Batasunarekin bat egiten zuen. 1988an hil zen eta omenaldia eskaini zioten Done Petri plazan.



Jon Fano

"Hainbeste urteren ondoren Euskal Herria bere indarraz jabetu zen eta erregimen faxista amaitzea posible zuela ikusi zen"

Jon Fano, San Inazioko bizilaguna, Burgosko auziko akusatuen aulkian esertzeaz libratu zen. 1969an Polizia espainiarra bere bila joan zenean ezkutatuta zegoen jada.

Zer datorkizu burura Burgosko epaiketaren aurreko urteen inguruan?

Oso egoera nahasia bizi zen eta errepresio itzela zegoen. Euskal Herrian birsortze prozesua gertatzen ari zen. Hirurogeigarren hamarkada arte langile mugimendua eta nazio aitortza aldarrikatzen zuten subjektuak bakoitza bere bidetik zihoazen. Eta hori guztia, ETAren sorrera eta garapenarekin aldatzen hasi zen. Bateratze prozesu bat egon zen eta askatasun nazional eta sozialak uztartuko zituen lehen haziak zabaltzen hasi ziren.

Zerk bultzatu zintuzten zuek bezalako gazteak ETAn militatzera?

50. hamarkadaren bukaeran egoera soziala oso larria zen. Krisia eta miseria erabat hedatuta zeuden. Bestalde, arlo nazionalean jazarpena erabatekoa zen. Gerra eta gerra ostekoa bizi eta ezagutu zutenak, pairatutako sufrimendua eta errepresio basatiaren ondorioz izututa, erabat etsituta eta beldurtuta zeuden. Ez ziren gai frankismoak ezarritako terroreari eta bidegabekeri sozialari aurre egiteko. Belaunaldi berriok, gerra bizi ez genuenok, faxismoaren kontra eta askatasunean eta justizia sozialean oinarritutako sistema demokratiko bat ezartzeko zerbait erradikala egin behar zela konbentzituta geunden, eta gutako askorentzat hori gauzatzeko ikusten genuen tresna bakarra ETAn militatzea zen.

Zure belaunaldiarentzat Burgosko auzia garaipen bat izan zen?

Nahiz eta espetxe zigorrak oso gogorrak izan, askatasunaren ikuspuntutik erabateko garaipen politikoa izan zen. Epaiketan auzipetuen jarrerak, kaleko mobilizazio etengabeek eta erraldoiek (nahiz eta errepresio bortitza jaso) eta nazioarteko mobilizazioek heriotza zigorrak bertan behera gelditzea lortu zuten, eta agerian utzi zuten Frankismoaren ahulezia. Hainbeste urteren ondoren, Euskal Herria bere indarraz jabetu zen eta erregimen faxista amaitzea posible zuela ikusi zen.

DEUSTUKO ESKOLAKO HAUR HEZKUNTZA: HAURRAREN AUTONOMIA ERDIGUNEAN

Pasa den ikasturtean 2019-20an Berritzegune Nagusiak sustatutako Haur Hezkuntzako Egitasmo Esperimentalean lehenengo urratsak ematen hasi ginen. Espazioa eta antolamendua egokituz, haurrei bere interes eta jakin-mina asetzeko aukera zabala eskaintzen diegu.

Testua:
Deustuko Eskola

Arte ekosistema

Proposamen honen abiapuntua espazio ezberdinak diseinatzean datza, ondoren hauetako bakoitzean arlo edo gai desberdinak jorratzeko; hala nola, 'arte eta eraikuntzak', 'hizkuntza', 'matematika eta zientzia' eta 'jolasa sinbolikoa'. Behin ekosistema hauek sortuta, ikasle bakoitzak bere interes eta motibazioen arabera aukera dezake zein espazioetan jolastu eta zein ekintza egin, era libre batean. Modu honetan, haurraren erritmo indibiduala errespetatzen da, aldi berean hauen aniztasuna bermatuz. Hiru, lau eta bost urteko umeak espazio ezberdinetan nahasturik aritzen dira.

Bestalde, irakaslearen rola aldatu egiten da. Haurra ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzen denez, irakaslea prozesu honen laguntzailea eta dinamizatzailea izatera igarotzen da. Hau da, hezitzaile bakoitzak, espazio baten arduradun bezala, haurren jarduera eta beraien garapenaren prozesuaren behaketa egiten du eta materialaren horniketaz ere arduratzen da.

Espazioren diseinua bezain garrantzitsua izaten da ekosistemen barruan aurkitzen ditugun materialen aukeraketa. Material naturalen aldeko apustua egiten da. Hauen esplorazioa eta manipulazioaren bitartez sormena, iniziatiba, pentsamendu kritikoa eta lankidetza sortaraztea bilatzen da.

Nola hasi ginen Egitasmo Esperimentalean?
Berritzegune Nagusiak proiektu honetan parte hartzeko aukera eman zigunean, hezitzaile taldeak oso begi onez hartu zuen, gure haurrengan eragin positiboa izango zuen esperoan.

Jolasa sinboliko ekosistema

Pasa den irailean izan genuen proiektuarekin lehen hurbilketa. Egitasmoaren funtsak ezagutzeko Berritzeguneko aholkulariek formazio saio ezberdinak eskaini zizkiguten. Era berean, saio hauek gure eskolako errealitatearen inguruan hausnartzeko ere baliagarriak izan zitzaizkigun, bai ikasleen premiez ohartzeko eta baita beharrezkoak ikusten genituen aldaketak proposatzeko ere. Ikasturtean zehar hainbat aukera izan genituen beste eskola batzuetan egiten ari ziren antzeko esperientziak ezagutzeko.

Abendurako gure eskolako ikasgelak 'ekosistemak' bihurtu genituen. Honek Haur Hezkuntzako funtzionamenduaren eraldaketa sakona ekarri zuen. Espazioak, altzariak, ordutegia, materialak, ikasleen taldekatzea, etab. birmoldatu genituen. Eta, batez ere, proiektuarentzat berebiziko garrantzia duenez, hezitzaileok haurrarekiko dugun begirada aldatu genuen, hauek gure zereginaren zentroan jarriz.

Martxora arte proiektuari jarraikortasun bat eman genion, baina, pandemia delaeta eskolako esperientzia bertan behera utzi behar izan genuen. Hala ere, hezitzaile taldeak formazioa on-line jasotzen jarraitzeko aukera izan zuen.

Aurten formazio saioak egiten jarraitzen dugu, Berritzeguneko aholkularien laguntzaz. Momentuz, egungo osasun-egoeraren ondorioz, geletan haurrak ezin dira nahastu, talde bakoitza bere ikasgelan egotea beharrezkoa baita. Dena den, ahal den neurrian proiektuaren alderdi batzuk aplikatzen jarraitzen dugu: haurrei eskaintzen dizkiegun materialak, horiekin burutzen dituzten jarduera motak eta espazioan zehar mugitzeko askatasuna, besteak beste.

Hizkuntza ekosistema

Etorkizunari begira, ez dugu Egitasmo Esperimental hau praktikara eramateko ilusiorik galdu eta horretarako ahalik eta hoberen prestatzen ari gara.

Zientzia ekosistema

DEUSTUKO LEHENENGO BOTIKARIEN GAINEKO ALBISTEAK

XVIII. mende aldera joko dugu oraingo honetan, Deustuko lehenengo botikarien bila. Itxura guztien arabera, horiei zor diegu guk geuk oraindik erabiltzen dugun leku-izen bat: Botikazarra.

Testua:
Hektor Ortega

Michel Schuppach suitzar botikariak emakume bat artatzen Bernako bere botikan (1774).

Egiari zor, Deustuarekin lotuta aurkitu dugun lehenengo botikariak ez zuen gure herrian lan egin, Bilbon baino. XVII. mendearen amaieran Bilboko Jose Villar Río eta Katalina Fullaondo senar-emazteek Arkotxa etxea erosi zuten Deustuan, baita bota eta berri egin ere. Etxondoan ortu bat atondu nahi izan zuen Villarrek, ibaitik hur, belarrak, arrosak eta bestelako loreak hazteko "para usar de ellas y balerse en las confecciones que debe thener en su botica". Botika hura, esan legez, Bilbon zeukan, baina, jakina, deustuarrei ere zerbitzatu zien. 1715ean salaketa ipini zuen Deustuko Sebastian Arestizabali emandako botikak kobratu nahi zituelako.

Herriko lehenengo botikari ezaguna, berriz, Matias Arauko Artatza (1723-1791) izan zen. Araukotarrek Erandio aldean eduki zituzten hala jatorria nola ondasunak baina XVII. mendearen bigarren erdialderako familiaren adar bat Deustuan zegoen. Herrian jaio ziren hala Matias nola bere anaia-arrebak XVIII. mendearen hasieran. Ama Teresa Artatzaren bidez izen

bateko maiorazkoa heldu zitzaien, baina hura anaia Pedrorentzat gelditu zen. Matiasek Erandioko baserri pare baten jabetza eskuratu zuen eta bizimodua ateratzeko beste bide batzuk bilatu zituen.

Izan ere, 1755an -segurutik, lehenago ere bai- botika zeukan Deustuan zabalik. Bilboko Udalak lantzean behin (bi urtean behin sasoi hartan) bere jurisdikziopeko botikak ikuskatzeko agintzen zuen, eta urte hartan Bilboko bost botika eta, lehenengoz, "la casa y tienda donde tiene su botica Matheo (sic) de Arauco voticario en esta dicha anteyglesia" bisitatu zuten. Ikuskapena Pedro Elejalde Gernikako botikariak egin zuen. Deustuko botikan ibili zen, Araukorekin batera, eta honelako txostena eman zuen: "Se halla con falta de muchos medicamentos naturales y compuestos de uso común y precisa rreposición y algunos de los que existen, con defectos en la composición, reducibles no obstante al estado de perfección".

Hurrengo urteetako bisita guztietan Araukoren botika ikuskatu zuten. Horrek esan nahi du botikak etengabe zabalik eta lanean jarraitu zuela XVIII. mendearen bigarren erdialdean. Baina Matias Arauko ez zen botikari hutsa. Artxiboetako agirietan laga duen lorratzari segika, bestelako jarduera askotan ikusi dugu: hamarrenaren alokatzaile, ardo hornitzaile eta Deustuko fiel (alkate), besteak beste. Alegia, burges kutsuko lanbideetan aritu zen, sasoi hartako bere klaseko askok egin zuten bezala, lurraren errentak eta merkataritza inguruko jardunak uztartuz.

Badakigu ikasleak ere izan zituela botika-mutil. Adibidez, Durangoko Juan Jose Etxeandiak bost urte egin zituen Deustuko botikan, botikari izateko prestakuntza gisa.

Arauko eta Ibarra

Segurutik, horrela ikasi zuen ogibidea Matias eta Teresa Arrinderen alaba Katalinaren gizonak. Izan ere, 1790ko hamarkadan, Arauko hil ostean, suhi Asensio Ibarrak hartu zuen botikaren ardura. Gutxienez 1810era arte eutsi zion. 1795etik aurrerako ikuskapenetan Ibarra aitatu zuten Deustuko botikari gisa, baina, egiari zor, lehenago ere aurkitu dugu agirietan botikari moduan.

Aitaginarreba bezalaxe, zeregintsua zen Ibarra, botikaria jarduteaz gain, zazpi kontutan aurkitu dugu eta: ontzi-jabe, Deustuko fiela... Hala ere, 1810etik aurrera ez dugu bere botikaren arrasto gehiago topatu eta handik gutxira, 1813an, hil zen. Gerra lazgarri baten erdian gertatu zen eta, antza denez, inork ez zuen hartu lekukoa. Horrela amaitu zen Araukotarren botika.

Hala ere, ez zen desagertu lorratzik laga barik. Gure datuen arabera, Matias Araukoren botika izan zen Botikazarra toponimoaren sortu zuena. Botika jartzeko Ignazia Deustoren etxea hartu zuen alokairuan 1750eko hamarkadan. Bertan atondu zuen denda, lantegia eta etxebizitza. Eta etxe hura da gutxienez 1783tik aurrera agirietan Botika izenarekin azaltzen dena. Izenari eutsi zion botika jarduna galdu eta gero ere, baina noizbait, beharbada orduantxe, zaharra adjektiboa erantsi zioten.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

AUZOKO OSTALARIAK NEURRI ESKE ANTOLATU DIRA

Urriaren 26an EAEko taberna eta jatetxeak itxi zituztenean elkartzeko beharra sentitu zuten inguruko ostalariek. Bizkaian Bizkaiko Tabernariak plataforma sortu zuten eta Hego Euskal Herrian SOS Ostalaritza. Gure auzoetan ere, tabernariak antolatu dira itxieraren ondorioei aurre egiteko neurri eske.

Testua: PREST!
Argazkia: Ecuador Etxea

Estu daude tabernen jabe eta langileak azken boladan, batez ere lokala alokairuan dutenak. Hilabete gogorrak kateatu dituzte bata bestearen ondotik, harik eta urriaren 26an denek batera pertsiana jaitsi behar izan zuten arte.

Orduan hasi ziren ostalariak elkartzen eta antolatzen. Bilbon hainbat manifestazio egin zituzten itxieraren ondorioei aurre egiteko neurri eske eta kutsatzeen gorakadaren erantzule ez egiteko eskatzen.

San Inazio, Aragoiti eta Deustuko tabernariak ere antolatu ziren Bizkaiko Tabernariak plataformak deitutako mobilizazioak prestatu eta bertara joateko. “Sare bat osatu genuen eta antolakuntzan laguntzeko, pankartak egiteko, kartelak pegatzeko erabili dugu”, aipatu du Presley tabernako Mikelek.

Tabernan duten egoera azaldu digu Mikelek. Lau familia bizi dira establezimendu beretik, eta egoera “jasangaitza” zaie dagoeneko. “Alokairua, itxita egonagatik ere ordaintzen jarraitu behar izan ditugun gastuak eta eman diguten gutxiaren artean, egoera benetan zaila da”. Pandemiaren ondorioengatik auzoan itxi behar izan duen tabernarik ez du ezagutzen, baina denek egoera gogorra bizi dutela ziurtatu digu.

Abenduaren 12an berriz ireki zituzten taberna eta jatetxeak, baina neurri murritzaileek ez dute sektorearen suspertzea lagundu. “Auzoko ostalaritzak bi ordutegi on ditu lan egiteko: eguerdia eta 19:30 edo 20:00etatik 22:00etara. Langile batzuk arinago amaitu eta 19:00ak aldera etor daitezke, baina mugimendua 20:00etatik aurrera sumatu ohi dugu eta ordu horretan itxi behar dugu”, kexu da Mikel.

Egoera ez da erraza taberna jabeentzat, are latzagoa kontratupean zein ez tabernentzat lan egiten dutenentzat, zerbitzarientzat, sukaldarientzat, hornitzaileentzat, banatzaileentzat… Hori horrela, SOS Ostalaritza eta Bizkaiko Tabernariak plataformek burrunbadak deitu dituzte larunbatero 20:00etatik 20:15era bitartean.

AUZOKIDE ETA OSASUN-LANGILEAK ETENGABEKO ARRETA GUNEA IXTEAREN AURKA

artikulua
Osasungintza

Otsailaren 1etik aurrera Deustuko Etengabeko Arreta Gunea (EAG) 24:00etatik 08:00etara ixteko asmoa agertu du Osakidetzak. Murrizketaren aurka mobilizazio ugari egin dituzte azken asteotan anbulatorioaren aurrean herritar eta osasun langileek.

Testua eta argazkiak: PREST!

Abenduaren 30ean jakinarazi zien Osakidetzak osasun-langileei otsailaren 1etik aurrera Deustuko Etengabeko Arreta Gunea (EAG) gauez ixteko asmoa. Berrantolaketaren arabera, 24:00etatik 08:00etara bitartean ez da lehen arretako pazienterik artatuko Deustuko anbulatorioan. Ondorioz, ordu tarte horretako Bilboko larrialdi guztiek Basurtuko Ospitalera bideratu beharko dira, Deustukoa baita gaur gaurkoz hirian gauez irekita dagoen EAG bakarra. Ixten azkenak Solokoetxe eta Zorrotzakoak izan ziren.

Osasun-langileek murrizketa salatu dute, neurriak "praktikan Lehen Arreta are gehiago kargatzea" dakarrelako. Basurtuko Ospitaleko larrialdiek gainezka egitea ekarriko duela ohartarazi dute, orain arte EAGn artatutako patologia eta kasu arinak bertara bideratuko direlako, eta ondorioz "kasurik larrienak artatzea zailagoa izango da aurrerantzean".

Are larriagoa jo dute neurria pandemia betean hartzea, "itxaronaldiak luzatu" eta "kutsatze-arriskua areagotuko" baita, "bai pazienteen artean, bai haien senide eta lagunen artean, eta baita ospitaleko langileen artean ere".

Bizkaiko Lehen Mailako Arreta Batzordeak – ELA, SATSE, SME, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek osatua – salatu dute ekimenaren atzean "Osakidetzak EAG zerbitzua murrizteko eta desagerrarazteko duen estrategia" dagoela.

Auzokideek ere gogor erantzun dute itxieraren aurka. Deustuko Elkartasun Sareak deituta asteazkenero anbulatorioaren aurrean egiten zituzten elkarretaratzeekin jarraiki, abenduaren 16an gainerako auzoetako bizilagunei batzeko deia luzatu zieten. Jendetza gerturatu zen EAGren itxieraren aurka eta osasungintza publikoa indartzearen alde, eta asteazkenero biltzen jarraitzeko asmoa adierazi zuten. Pentsiodunek ere aldarri bera eraman dute astelehenetako manifestazioetara.

Osakidetzak Gorlizko EAGa ixteko asmoa azaldu zuen iragan ekainean, baina herritarren eta sindikatuen presioari esker ekimena atzera botatzea lortu zuten.

AINHOA MAIZTEGI RODRIGUEZekin

Dietista-nutrizionista

“Elikagaiak onuragarri edo kaltegarri

Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua ikasi zuen Ainhoa Maiztegi Rodriguezek (Deustu, 1996) Euskal Herriko Unibertsitatean. Egun nutrizionista gisa dabil lanean eta elikadura egoki baten garrantziaz eta horrek dakarrenaz hitz eindugu berarekin.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

bezala etiketatzea arriskutsua izan daiteke”

Garrantzitsua da elikadura zaintzea?
Bai. Egunean zehar egiten ditugun gauza guztiek, elikadurak barne, eragin zuzena dute gure bizimoduan eta noski, gure gorputzean. Osasuna aipatzen dudanean, ez naiz ari soilik fisikoan, osasun sozialaz eta mentalaz ere ari naiz. Egunero elikatzen gara eta hori zaintzea eta noski, horretaz kontziente izatea beharrezkoa dela uste dut.

Zer da elikadura osasuntsu bat?
Norberarekiko errespetua mantentzen duena, malgua eta beldurrik sortzen ez duen elikadura bat. Esperientzia sortzailea ere bada, beste kulturetara hurbiltzen gaituena, murriztailea ez dena eta betiere norberarekiko epairik sortzen ez duena. Azken batean, kontzientziaz hartzen dena.

Nolako pazienteak izan ohi dituzu?
Denetarik dago eta denek dituzte helburu eta motibazio ezberdinak. Patologia asko dituzten pazienteak izan ditut azkenaldian eta horrek asko harritu nau. Nutrizioaren mundua asko sinplifikatu da eta jendea helburu estetikoengatik soilik joan ohi da nutrizionista batengana.

Zein izan ohi da haien helburua?
Zergatik baino, zertarako jarri den harremanetan nutrizionistarekin galdetzen diot beti pazienteari. Zergatiak ez duelako hausnartzeko aukera askorik ematen. Pisua galtzeko edota gaixotasun baten ondorioak murrizteko dira entzuten ditudan arrazoi ohikoenak. Zertarako galdetzen diedanean ordea, erantzun oso ezberdinak ateratzen dira: elikagai berriak probatu nahi izatea, elikadura ohiturak aldatu nahi izatea, gorputzarekin bakean egon nahi izatea edota 50 urte barru biloben atzetik korrika egin ahal izatea.

Zelan lagundu deizaioke nutrizionista batek elikadura nahasmena duen norbaiti?
Disziplina anitzeko lan talde baten aldekoa naiz, hau da, pertsona batek bakarrik ezin izango du elikadura nahasmena duen norbait lagundu. Psikologoekin, psikoterapeutekin eta jakina, familiarekin eta inguruko jendearekin tandem moduko bat sortzean dago gakoa. Nutrizionistak, kasu honetan, elikagaiekiko harremana hobetzen, momentu horretan gertatzen ari denaz jabetzen, kontzientziatzen eta nutrizio aldetik osasuna arau bat sortzen lagundu dezake.

Uste duzu ezjakintasun handia dagoela dieten inguruan?
Bai, eta guztiz ulergarria da. Urtero dieta eta korronte berriak agertzen dira: bat batean esaten digute arrautza jatea ez dela egokia kolesterola handitzen duelako, ostera egunean bizpahiru arrautza jan

“Disfrutatzeari uzten diogunean edo dietak gu kontrolatzen gaituenean osasuntsua izateari uzten dio eta hori arriskutsua da”

▷ ▷ SAKONEAN

"Sistema gordofobikoari aurre egiteko asmoz, geroz eta gehiago zaintzen dugu erabiltzen dugun hizkera"

Zergatik aukeratu zenuen nutrizioaren munduan murgiltzea?

Familiako kide batek tratu sanitario arrotza jaso zuen nutrizionista eta endokrinoaren aldetik eta horrek mundu honetan murgiltzera eta hau ikastera bultzatu ninduen. Paziente bat elikadura integratibo batetik begiratuta, osotasunean nola tratatu ikastera, alegia.

Zein da nutrizionista eta dietista baten arteko desberdintasuna?

Ikasketetan dago ezberdintasuna. Nutrizionista batek Giza Nutrizioko eta Dietetikako gradua egin behar du, lau urtekoa. Dietista batek, ordea, goi mailako gradua, bi urtekoa. Lanbide ezberdinak dira eta noski, lan esparrua ere ezberdina da.

Nutricion Plato del Mundo Instagram kontua daukazu lankide batekin, zer lortu nahi duzue horrekin?

Hasierako helburua elikagai osasungarriekin sortutako dieta baten eskuragarritasuna erakustea zen. Hots, elikadura osasuntsu bat eramatea erreza dela erakutsi nahi genuen. Denborak aurrera egin ahala gure mezua aldatu egin da, izan ere, sistema gordofobikoari aurre egiteko asmoz, geroz eta gehiago zaintzen dugu erabiltzen dugun hizkera. Era berean guk ditugun hainbat ezagutza ere zabaltzen ditugu, adibidez, sistema sozialaren egoeraren inguruan ere mintzatzen gara, baita gure gorputzekiko ditugun jarreren inguruan ere.

ditzakezula entzuten dugu… Hainbeste informaziok desinformazioa ekarri du eta ondorioz, dena sinplifikatzera eraman gaitu.

Existitzen dira dieta magikoak?

Oso argi daukat ezetz. Gainera, oso erreza da dieta hauek identifikatzea. Dieta magikoek, esate baterako, izen edo aurpegi ezagun bat izan ohi dute atzean eta orokorrean nutrizioaren edo dietetikaren munduarekin zerikusirik ez duen pertsona bat izan ohi da. Dieta magikoek izen gogoraerrazak dituzte, batzuetan elikagai baten izena daramate eta orokorrean murrizketa asko dakartzate, ordutegi, elikagai eta plazerraren aldetik.

Azken aldian asko entzuten da aldizkako barauaren inguruan. Zer da? Zertarako balio du?

Estrategia nutrizional bat da eta estrategia guztiak bezala aurrean daukagun kasuaren arabera egokia edo desegokia izan daiteke. Dieta ketoganikoarekin berdina gertatzen da, kasu batzuetan gomendatuko nuke eta beste hainbatetan ez. Gainera, nahiz eta estrategia orokorra izan, aldi berean oso pertsonalizatua egon behar du, hots, ez dago aldizkako baraualdia aurrera eramateko arau orokorrik. Laburbilduz, egunean zehar mantenugai batzuk eman behar dizkiogu gorputzari, eta horiek bi, hiru edo bost otordutan lortzea pertsonaren araberakoa izango da. Nutrizioak eskaintzen dituen tresnen artean, beste bat da aldizkako baraualdia.

Berdina gertatzen da *Realfood*-en inguruan. Zer deritzozu?

Realfooding-aren helburua elikagai freskoen kontsumoa sustatzea da eta ni horrekin ados nago. Arriskutsua dela deritzot azkenaldian sare sozialetan asko masifikatu den kontzeptua delako eta bakoitzak Realfooding delakoaren interpretazio bat egiten duelako. Murriztailea denean, disfrutatzeari uzten diogunean edo dietak gu kontrolatzen gaituenean osasuntsua izateari uzten dio eta hori arriskutsua da.

Sare sozialetan asko zabaldu den mugimendua ere bada. Uste duzu kaltegarria izan daitekeela elikaduraren inguruko zabalpen masibo hori?
Oso garrantzitsua da gaia nola zabaltzen dugun zaintzea. Elikagaiak onuragarri edo kaltegarri bezala etiketatzea arriskutsua izan daiteke, batez ere elikagai kaltegarri horiek kontsumitzen dituzten pertsonentzako, balioa kentzen zaielako. Elikagaiak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzekin kontuz ibili behar gara, ez baitago elikagai onik ezta txarrik ere. Ezin ukatu nutrizionalki interesgarriagoak diren elikagaiak daudela, baina horrek ez du ezartzen hobea edo txarragoa denik. Etiketak jartzen hasten garen momentuan arazoak sortzen dira.

Zer dira elikagai ultraprozesatuak?
Palatagarriagoak izan daitezen prozesu bat edo beste jasan dituzten elikagaiak dira. Hau da, gustu, zapore, usain eta biskositate handiagoa izan dezaten prozesatzen dira. Elikagai horiek esperientzia bilakatzen dira kontsumitzailearentzako. Ez dira elikagai txarrak, baina elikagai horietan oinarritutako elikadura bat ez da batere gomendagarria.

Kulturalki jaten eta edaten sozializatzeko ohitura daukagu. Osasungarria da?
Bai, guztiz. Euskal Herrian batez ere bizitzako gauzarik politenak zein txarrenak mahai baten inguruan ospatu ohi ditugu. Janariak botere sozial eta emozional handia dauka eta hori nire ustez osasuntsua da. Zer, zergatik eta nola jaten ari garen kontziente izatean dago gakoa.

Gabonetan egun asko ematen ditugu asko eta denetarik jaten, ondoriorik al du?
Nik uste dut ondorio emozional eta psikologiko positiboak dakartzala. Pentsatzen duguna baino gutxiago irauten dute Gabonek, orotara gutxi gorabehera hilean egiten ditugun 93 otorduetatik bospasei dira eguneroko errutinatik kanpo egiten ditugunak. Lehen aipatu dudan bezala, kontziente izatean dago gakoa.

Zeintzuk dira gezur edo mito nagusiak nutrizioaren munduan?
Egia absolutua defendatzen duen edozein esaldi mitoa da, hau da, mito bezala uler daiteke indibidualki tratatzen den edozein aholku: ogiak titiak handitzen ditu, fruta sabelean hartzitu egiten da…

“Janariak botere sozial eta emozional handia dauka eta hori osasuntsua da”

ONDARE FRANKISTA

San Inazioko plaka frankistak kendu dituzte

Ondare frankista salatzeko kanpainaren baitan, San Inazioko Gazte Asanbladak auzoan identifikatutako Sindikatu Bertikaleko plaka guztiak kendu ditu. Horretan ari zirela "auzokide faxista" batek burdin makil batekin mehatxatu zituela salatu dute, "esa placa está muy bien donde está", "putos separatistas", "viva España", eta halakoak oihukatzen zituen bitartean. Plakak kendu dituzte, baina ondare frankista ez da guztiz desagertu San Inazioko kaleetatik. Oraindik Pedro Astigarra izena duen plaza dagoela ohartarazi du Gazte Asanbladak. Pedro Astigarraga alkatetza ordezkari izendatua izan zen 1937ko lehen korporazioa frankistan, tropa frankistek Bilbo hartu eta bederatzi egun geroago. 1963ko ekainean Bilboko urrezko domina frankista eman zioten.



LANAK

San Inazioko ortuak botatzen hasi dira

Sepurukoatxako tontorra garbitzen ari dira bertan behatoki bat egiteko. Horretarako bertako ortu batzuk eta eraikuntza batzuk bota dituzte. Bi pertsona bizi ziren eraikuntza bat ere bota dute. Auzokideek salatu dute mugimendu hauen atzean etxebizitza gehiago eraikitzeko asmoa dagoela, zehazki egun Bilbobus eta Bilbogarbi dauden lekuan. Horretarako, hiriko eremu berdeak handitu behar ditu Udalak, egungo udal-ordenantzak hala agintzen baitu, eta horri erantzuten Elorrieta eta Madre de Dios ikastetxearen artean dagoen eremua parke bihurtzeko asmoak. Horrez gain, dagoeneko hasi dituzte Elorrietako Carmelo Larrea plazan erabilera anitzeko gune estalia eraikitzeko lanak. Guztira 545 metro karratu izango ditu, haurrentzako jolas gunea barne, eta 850.000 euroko inbertsioa beharko du.



EUSKARA

Udalak San Inazio eta Deustuko bi saltoki omendu ditu euskara sustatzeagatik

Euskararen sustapen eta erabilerarekiko konpromisoagatik bost saltoki omendu ditu Bilboko Udalak. Horietatik bi San Inazion eta Deustun daude. Catalunya Kaleko Frutería Los Chicos eta Luis Power kaleko Deustu Bikes-Ciclos Deusto dira. Gainerakoak, Uribarriko Arbeko Electrodomésticos, Alde Zaharreko Farmacia Lotina eta Semillas, plantas y floristería Mikel Zuazua dira. Hiriko kaleetan euskara normalizatzeko egiten duten lanagatik eta euskararen sustapenarekiko eta erabilerarekiko erakutsitako konpromisoagatik aitortu dituzte.

Jon Mirena San Pedro, Herreratik Palentziara

Jon Mirena San Pedro Blanco deustuar presoa Herrera de la Manchatik (Ciudad Real, Espainia, Deustutik 590 km), Dueñaseko (Palentzia, Espainia, Deustutik 260 km) espetxera eramango dutela jakinarazi du Espainiako Barne Ministerioak. Leku-aldaketaz gain, lehenengo gradutik bigarrenera igaroko dutela iragarri du. Bestalde, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatua zigortu du Jon Mirena San Pedrok eta hiru preso gehiagok Auzitegi Konstituzionalean aurkeztutako babes errekurtsoak ez onartzeagatik. Auzitegiaren esanetan, lau euskaldunek, "gutxienez, segurtasun juridikoaren falta sufritu dute". Hala ere, ez die arrazoia eman Frantzian betetako zigor urteak Espainian kontuan hartzeko eskaerei.

Urtea: 1933

Txema Luzuriaga

San Felicisimo

San Felicisimo santutegiko irudi zaharra, pelegrinazio gunea oraindik ere. Antzinekoa 1882an eraiki zuten. Pasiotarrak 1879ko otsailaren 29an heldu omen ziren Deustura. Eliza eraitsi eta leku berean egungoa eraiki zuten. 1960an jarri zuten lehen harria. Pasiotarrek lagatako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Uste duzu 2021ean maskara kenduko dugula?

Nerea Ibarrekolanda

Ez dut uste.

Aitor Ondarru

Agian ez da derrigorrezkoa izango, baina jende askok betiko mantenduko du, ohituraz.

Ane Zabalburu

Ez, berdin jarraituko dugu 2022ra arte gutxienez.

Laura Deustu

2022ra arte, edo beranduago, itxaron beharko dugula uste dut.

Asier Zorroza

Ez. Agian egoerak hobera egingo du, baina horretarako jendearen pentsaera eta jokabidea aldatu beharko dira eta arduratsuago jokatu.

Jon Barakaldo

Mundu guztiaren erantzukizunaren arabera izango da hori.

>> SORTZAILEEN AZOKA

SORTZEN DUEN HERRIA EZ DA INOIZ HILKO

Abenduaren 17tik 19ra, gazte sortzaileen azoka burutu da 7 Katu gaztetxean eta Deustuko gazte lokalean. Bi kolektibo horiek Kaskagorri konpartsarekin batera antolatuko egitasmoa izan da. Diziplina guztien arteko "oreka" eta auzokideen "erantzuna" nabarmendu dituzte antolatzaileek.

Testua eta argazkiak: Sortzaileen azoka

Gazte sortzaileen egoera ez da batere xamurra. Jada oso prekarizatua den kulturaren sektorean jarduteaz gain; gazte izateak, are oztopo gehiago ezartzen dizkie maite duten horretan ogibidea topatzerako orduan. Abeslari, musikari, margolari, diseinatzaile, artisau... edozein dela ere haien bidea, arantzaz josita aurkituko dute. Are gehiago, pandemiak jotako garaiotan; non bizitzak alde batera utzi, eta errentagarritasun ekonomiko hutsa jarri den erdigunean. Zalantzarik gabe, kultura izan da sektore kolpatuenetariko bat. Ez soilik ekimenak antolatzeko dauden zailtasunegatik, baita ere, funtsezkoa ez den zerbait dela sinestarazi nahi izan digutelako.

Zaila da garaiotan kulturari eustea, baina ez ezinezkoa, eta hala adierazten du joan den asteburuan, bai 7 Katu gaztetxean zein Deustuko Gazte Lokalean antolatutako gazte sortzaileen azokak. Bi gaztetxeek, Kaskagorri konpartsarekin batera egindako egitasmoa izan da, sortzaileei plaza bat eskaini, eta urte gogor honi "bultzada bat" emateko asmoz. "Kaskagorritik beti saiatu izan gara sortzaileekin gauzak antolatzen. Hiru urte inguru daramatzagu haien lana bultzatzeko dinamika bat garatu nahian, eta pixkanaka, ari gara formula topatzen", azaldu du Joseba Zupiria Kaskagorriko kideak. Orain arte, batik bat, musikan zentratu direla dio: "Hori zen gure inguruan zegoena, eta horretan zentratu gara; azokarekin ordea, azken urteetan martxan jarritako dinamika moldatu eta jarraipena emateaz gain, beste motatako sortzaile askorengana heltzeko aukera izan dugu".

Izan ere, mota guztietako diziplinak izan dira presente joan den asteburuan antolatutako azokan: Diskoak, kamisetak, koadroak, laminak, belarritakoak... baita eztia ere. Eta oreka bermatzeko, eskaintza ia berdina egin da azoka antolatu den bi tokietan. "Antolakuntzak lan asko eman digu eta pixka bat kaotikoa izan da: materiala batu, bi tokietara banatu, zerrendak osatu, txandak lotu... baina, egia esan, bai sortzaileen zein auzokideen erantzuna bikaina izan da", nabarmendu du Nagore Anakabe 7 Katuko kideak. Antolakuntzan ibiltzeaz gain, sortzailea ere bada, eta "oso era positiboan" baloratzen du esperientzia.

Bat etorri da Josu Lopez Deustuko Gazte Asanbladako kidea: "Zeharo harrituta geratu gara. Parte hartzea izugarria izan da, eta salmentak espero genituenak baino gehiago". Azoka sortzaileei "ahotsa" emateko ideia bezala jaio zela dio, haien lanak erakusteko espazio bat eskainiz. "Ez genuen espero hainbesteko salmentarik izango zenik. Diziplinei lotuz, gainera, asko izan ditugu, eta denek izan dute arrakasta". "Oreka" bat egon dela dio: "Jendeak konpromiso handia erakutsi du, esate baterako, koadro eta lamina asko saldu dira, eta eskertzen dugu asko bai auzoko artisten parte hartzea zein bertaratu diren guztien jarrera".

Nahiz eta garai zailak etorri, sortzaileek ez diote haien egitekoari muzin egin, eta etxean sartuta geunden une latzetan ere, saiatu izan ziren sare sozialen bidez, haien lanak gurekin elkarbanatzen. Hor egon ziren, behar genituenean, eta orain guri dagokigu ere haiekin egotea, sorkuntzari bultzada bat eman, eta denon elkarlaguntzaz beste mundu bat sortu ahal izateko.

http://sarekada

Feminismoa eta Berdintasuna hiztegia

Alor horretako euskarazko terminoak jasotzen ditu hiztegiak, indarrean dagoen legeriak ezarritakoetatik hasi, eta gizarte mugimenduetatik sortutakoetaraino. Horiekin batera, nazioarteko erabilera daukaten hitzak ere biltzen ditu. Terminoak dagozkien kontzeptu eta definizioekin integratu dituzte Euskalterm Terminologoa Banku Publikoan.

Deustuko Jai Batzordearen diru bilketa kanpaina aurrera doa

Urtarrilaren 4ra bitartean Crowfunding kanpainan betean murgilduta egongo da Deustuko Jai Batzordea, martxoan jaiak hastear zeudela bertan behera utzi behar izanak eragindako zorra kitatu ahal izateko. Hainbat bide daude laguntza emateko: zenbait saltoki laguntzaileetan jarri dituzten itsulapikoen bidez, bono laguntzen bidez eta *itsulapikoa.eus* plataformaren bidez.

4168 kikometro bizikletan Ghanako bi umezurztegi laguntzeko

Gorka Rodriguez deustuarrak Deustutik Dodowara (Ghana) lerro zuzenean dauden kilometro haina - 4.168 - bizikletan egingo ditu hainbat etapatan, bertako bi umezurtz-etxerentzako dirua biltzeko. Horretarako kilometro bakoitza euro batean salduko dute eta bildutako dirua osasun- eta hezkuntza-premiei aurre egiteko erabiliko da. Rodriguezek abenduaren 1ean hasi eta urtarrilaren 31ra arte, 62 egunez, etapa ezberdinak egingo ditu 4168 kilometroak egin arte. Informazio gehiago sare sozialetan eta helbide honetan: pedaleandoghanan@gmail.com.

AUZOKO TXOKOAK KOADRO BIHURTUZ

Sarean San Inazioko koadroak eskegitzen hasi zenean ezagun egin zen Iñaki Ortiz. Moldekatzean aritua ere baden arren, orain margolaritzan ari da batez ere. Argiaren sakontasunarekin jolastea gustatzen zaio, paisaietan sakontasun bila, eta abstrakzioa du jomugan, betiere errealitatetik abiatuta.

Testua eta argazkiak: Jone Gartzia Gerra

Arbolagaña kalean du estudioa Iñaki Ortiz Aviot saninazioztarrak. Aspaldi, zizelkatze eta pintura tailer bat zen, eta Iñaki ikaslea izan zen bertan. Taldea beste leku batera mugitu zenean, Iñaki bakarrik geratu zen lokalean.

Hala ere, hutsik egon da denbora luzez. Eroso lan egiteko lekurik gabe eta denbora faltan, 20 urte eman ditu Ortizek moldatu eta margotu gabe. Itzultzeko gogoz zegoen eta koronabirusaren ondorioz langabezian geratu zenean berriz hastea erabaki zuen. Ordurako bazuen lekua, eta apenas pintatu gabe ia bi hamarkada eramatea ez da koadro berriak egiteko oztopo izan. Areago, besteen koadroak ikusten zertxobait hobetu duela uste du.

Margolaritzarekin hasi da gogor, eskulturak eta moldeak apur bat alde batera utzita. Pintura akrilikoa deskubritu du, eta olioa ez bezala arin lehortzen denez, zuzenketak egiteko errazagoa dela deritzo. “Ni ez naiz margolari fina, zuzenketa asko egin behar

izaten ditut, eta olioarekin hori ezin da egin, koadroa hondatzen delako”, diosku. Akrilikoak, ordea, beste askatasun bat eman dio.

Paisaiak margotzea gustuko du, baina ez errebelatutako argazki bat oinarri hartuta, baizik eta errealitatea bera. Gustuko ez duena, ordea, atrilarekin han-hemenka ibiltzea da. Tabletak arazoa konpontzen lagundu dio: nahi duen argazkia egin eta argi propioa duen gailu batean ikus dezake. Argi-uneak harrapatzea gustatzen zaio; argiarekin, gerizpearekin eta itzalarekin jolasten da, paisaietan sakontasun bila.

Leku askotako paisaiak margotu ditu, besteak beste San Inazioko lau eta Ibarrekolandako bat, Arangoititik ikusita, eta horregatik egin da ezaguna bazterrotan. Ekin eta ekin ari da eta lan gehiago prest ditue-

nean erakutsi eta saltzeko intentzioa du. Hala ere, merkatua oso zail ikusten du: “Margolari onei ere kostatu egiten zaie saltzea”.

Instituzioek artista berriei ematen dien babes falta ere oztopo bat da. Bere ustez, erakusketarako areto gutxi daude, “Udalak erabiltzen ez dituen lokalak baditu ere”. Herritarrentzat beharrezkoa den zerbitzu batean inbertitu beharrean, “bere ospea puzteko” baliagarriak zaizkien proiektuak bakarrik babestea kritikatu du, era horretan gastu finkoa saihesten duelako. “Guggenheim efektuak gainerako guztia suntsitu izan balu bezala da”, erantsi du. Momentuz, bere kabuz ikasten eta koadro gehiago sortzen jarraituko du. Abstrakziora jo nahi du, gainera, baina irudi batetik abiatuta, orain arte bezala.

TODO SALDRÁ BIEN
abenduaren 11tik
abenduaren 20ra
Testua eta Zuzendaritza IÑIGO COBO
Antzezleak NAGORE CENIZO-ARROYO, LEIRE ORMAZABAL, ITXASO GIL, ALAZNE ASTORGA, ARNATZ PUERTAS, AITOR ECHARTE
www.pabellon6.org

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Txokolatezko browniea eta kuia-bizkotxoa

Urte gazi-gozoari amaiera emateko, Heliodoro de la Torre kaleko 4. zenbakian ireki berri duten Maikala gozo-dendara gerturatu gara. Maite jabeak bertan egiten dituzten bi opilen sekretuak kontatu dizkigu: txokolatezko browniea eta kuia-bizkotxoa.

Zailtasun maila: Erraza

Egiteko denbora: browniea 45 minutu bizkotxoa ordu eta 45 minutu

Prezioa: 2 euro errazioak

Berezitasuna: browniea ez da bizkotxo bat, hezea da barrutik, ez harrotua. Kuia-bizkotxoa Maikala gozo-dendaren lehen produktua izan zen.

Kontu batzuk

Orain 8 urte inguru hasi zen Maite kuia bizkotxoak egiten Sancho de Azpeitia kalean ireki zuen lantegian. Hiru urte geroago, lehen gozotegia ireki zuen Plaza Barrian. Maikala deitu zion, Maite eta kalabazaren arteko nahasketaren emaitza. Konfinamendua amaitu zenean, Deustun beste saltoki bat irekitzea erabaki zuen, auzokideek hala eskatuta. Denetarik dute salgai Heliodoro de la Torre kaleko gozo-dendan: tartak, opilak, hostopilak, arroz-pastelak, donut naturalak, madalenak... baita ogia ere.

Maikala gozo-dendako Maite.

Maikala
Lo mejor, el postre
PASTELERÍA

Heliodoro de la Torre 4, Deustu
944 071 472

Plaza Barria 11, Bilbo
946 028 645

maikalabilbao.com
www.facebook.com/maikala
@maikalabilbao

Zelan egin?

Browniea egiteko lehendabizi estaldura gurinarekin batera urtu behar dugu. Bitartean, arrautzak azukrearekin nahastuko ditugu eta urtutakoari gehitu. Irinarekin errematatu eta amaitzeko intxaurrak txertatu. Ordu erdi inguru laberatu 170 gradutan.

Kuia-bizkotxoa egiteko arrautza eta azukrea nahasi behar ditugu. Gero, oliba-olioa eta kanela gehitu eta jarraian irina eta eragilea. Amaitzeko, kalabaza xehatu eta gordinik erantsi behar dugu. Ordubetez izango dugu labean 170 gradutan.

OSAGAIAK

Browniea:
Estaldura
Gurina
Irina
Azukrea
Arrautzak
Intxaurrak

Kuia-bizkotxoa:
Kuia
Arrautzak
Azukrea
Oliba-olioa
Irina
Eragilea
Kanela

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

JON MIRENA SAN PEDRO
Irakurle irregularra

HOBBITA EDO JOAN-ETORRI BAT

Neurtezinak diren on-gaitz oro aintzakotzat hartuz ala horretaz futituz, zuek baietza emango, uko egingo al zeniokete abentura bat bizitzeko balizko proposamen bati?

Bilbo Baggins-ek Gandalf-i aitortu legez, nazkagarri, gogaikarri, deserosoak zeritzen abenturei, bere burua hobbit patxadatsutzat joz... 'Gainera berandutu egingo zaizue afaltzeko!' Harik eta Thorin Haritzezko Ezkutuk eta Konpainiako gainontzeko ipotxek -tartean Nori, Ori, Oin, Kili zirela- bera limurtu eta luzatu zioten hitzarmena izenpetu zuen arte.

Nagoen talaia honetatik edozein daturik baieztatzea zinez zaila den arren, kontakizunak dioenez, 1929ko udaran, Oxfordeko Pembroke College-ko J.R.R. Tolkien ingeles filologiako irakasle gazteak, bete gabe itzuli zioten azterketa batean 35 letra -euskaraz 32 hizki direnak- zirriborratu zituen bere buruarekin hitz-aspertuan, argitaratzeko asmorik gabeko ipuin bat bere haurrei eskaintzeko asmoz: "Lurrean, zulo batean, hobbit bat bizi zen". Eta horrelaxe eman zion hasiera gaur dakarkizuedan liburu perlari.

Azkenean, 1937an karrikaraturik, bihotzez eskertu behar diegu Xabier Olarra ta Sergio Ibarrolari, Igela argitaletxearen eskutik 2014an euskaratu izana.

Inoiz, nonbait, goblinak, trollak, wargonak... inguruan badituzue zuen urratsak barrandatuz, Smaug Izugarriaren hatsa sumatzen baduzue gaua baino ilunagoa den gure hiri, herrietako zoko-mokoren batean, 'egin ezazue ulu bi aldiz hontz zuriak bezala eta behin basoko hontzak bezala'. Eta gure bakardadeaz bat eginez baino ez bada ere, zainduko dugu elkar.

Doinua: ETA-ren su etenetik

UNAI FORURIA EGIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Udaberria loretsu
zuhaitzek jantzi berria
Uda argiaren eta
beroaren iturria
Udazkena hain ederra
dena laranja-gorria
Eguna laburtuz doa
ortzi-mugan oskorria
Negua iritsi zaigu
lurrean zuhaitz-orria
Euri ta haize boladak
hotza ere hilgarria
Nahiz den mudantza handia
ez da hain gauza larria
Negu ororen atzetik
baitator udaberria

Negua berez badenez
urtaro hotz ta tristea
Urtaroen kiribila
bizi-heriotz katea
Eutanasiak badauka
guzti honetan tartea
Eratzen baitu negutik
udaberrirantz atea
Heriotzak behar luke
bizitzak bezain askea
Norberarena delako
norberaren izatea
bizi-urtaro denetan
gailendu bedi bakea
Eguberri on denoi
ta primeran hasi urtea!

Bilbon euskaraz

Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

Indartu euskarazko tokiko hedabideak

Izan herriko aldizkariaren parte

Gertuko informazioa hilero paperean eta e-postan

Babestu PREST! aldizkaria

25 euro urtean

prestharpide@gmail.com

Prest!

BILBO

PARRAUNDI - Blas de Otero, 45
LA VITORIANA - Rafaela Ybarra, 14
JK TAHONA - Iturriza, 5
BIZKARRA - La Cruz, 8
BIZKARRA - Ibaialde, 5
BIZKARRA - Licenciado Poza, 12
BIZKARRA - Julian Gaiarre Hiribidea, 28

Euskadi, auzolana, bien común

hazi
LABORA, ITURRIZTZ ETA ELIKAGAIEN BERRIKUNTZA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO